

Mendekostearen igandea (B)

LEHENENGO IRAKURGAIA

Denak Espiritu Santuaz bete ziren eta hizkuntza arrotzez hitz egiten hasi ziren.

Eginak liburutik 2, 1-11

Mendekoste-eguna iritsi zenean, toki berean bildurik zeuden guztiak. Bat-batean, haize-boladarena bezalako burrunba etorri zen zerutik eta beraiek zeuden etxe guztian durundi egin zuen. Orduan, suzko mihiak bezalako batzuk ikusi zituzten, bakoitzaren gainean bana kokatzen. Denak Espiritu Santuaz bete ziren eta hizkuntza arrotzez hitz egiten hasi, bakoitza Espirituak eragiten zion eran.

Egun haietan judu jainkozale asko ziren Jerusalemen, eguzkiaren azpian diren nazio guztietatik etorriak. Burrunba hura entzutean, hara bildu zen jendea samaldan, eta txunditurik gelditu ziren, nork bere hizkuntzan hitz egiten entzuten baitzien. Zur eta lur, honela zioten:

«Mintzo direnok, ez ote dira denak galilearrak? Nola daiteke, bada, guretako bakoitzak bere jatorrizko hizkuntzan horiei entzutea? Baditugu gurekin partiar, mediar nahiz elamdarrak; baita Mesopotamian, Judean nahiz Kapadozian, Ponton nahiz Asian bizi direnak ere; badira gure artean Frigia nahiz Panfiliakoak, Egipto nahiz Zirene inguruko Libia aldekoak, baita erromatarrak ere; eta denok, judu eta juduberri, kretar eta arabiar, Jainkoaren egintza miragarriak geure hizkuntzetan aipatzen entzuten diegu».

Jaunak esana.

SALMOA

Salmoa 103, 1ab y 24ac. 29bc-30. 31 y 34 (R.: cf. 30)

R.

*Zeure arnasa bidali eta berriro sortzen dituzu
eta lurbira berritzen.*

Bedeinka beza ene arimak Jauna!

Jauna, ene Jainko, bai handia zarela!

Bai ugariak, Jauna, zuk eginak!
zure sorkariz betea da lurra. **R.**

Zuk arnasa kentzean,

hil egiten eta hauts bihurtzen.

Zeure arnasa bidali eta berriro sortzen dituzu
eta lurbira berritzen. **R.**

Betiko izan bedi Jaunaren ospea!

Poz bedi Jauna berak eginekin!

Atsegin bekio nire kanta:
Jaunarengan nik neure poza! **R.**

BIGARREN IRAKURGAIA

Espiritu bat beraz izan gara bataiatuak, gorputz bat bakarra egiteko.

San Pablo apostoluak korintoarrei egindako lehenengo gutunetik 12, 3b-7. 12-13

Senideok:

Inork ezin duela esan «Jesus da Jauna» Espiritu Santuak eraginik ez bada.

Era askotakoak dira dohainak, baina Espiritua bat bakarra; era askotakoak zerbitzuak, baina Jauna bat bakarra; era askotakoak egintzak, baina Jainkoa bat bakarra, guztiei egintza guztietara eragiten diena.

Era ezberdinean azaltzen da bakoitzarengan Jainkoak ematen duen Espiritua, baina beti denen onerako.

Gorputzak, bat izan arren, atal asko ditu, baina atal guztiek, asko izan arren, gorputz bat osatzen dute. Gauza bera gertatzen da Kristorekin ere. Gu guztiok, judu nahiz jentil, esklabo nahiz libre, Espiritu bat beraz izan gara bataiatuak, gorputz bat bakarra egiteko, eta guztioi Espiritu bat bera isuri zaigu.

Jaunak esana.

Edo:

Espirituaren fruitua.

San Pablo apostoluak galaziarrei egindako gutunetik 5, 16-25

Anai arreboak, hauxe diotsuet: Bizi zaitezte Espirituari dagokionez eta ez giza grinei jarraituz. Giza grinak Espirituaren aurkakoak dira eta Espiritua giza grinaren aurkakoak. Bi indar horiek elkarren aurkakoak dira; horrela, ez duzue nahi zenuketena egiten. Espirituak gidatzen bazaituzte, ordea, ez zaudete legearen menpe.

Giza grinetatik sortzen diren egintzak ezagunak dira: lizunkeria, zikinkeria, jokaera biziotsua, idolatria, sorginkeria, etsaigoak, haserreak, bekaizkeria, gorrotoak, norgehiagokeria, alderdikeria, zatiketak, ikusezina, hordikeria, sabelkeria eta horrelakoak. Eta lehen esan nizuena diotsuet berriro ere: Horrela jokatzeko dutenek ez dute Jainkoaren erreinua ondare jasoko.

Espirituaren fruitua berriz, hau da: maitasuna, poza, bakea, pazientzia, bihotz ona, onginahia, leialtasuna, otzantasuna, bere buruaren jabe izatea. Ez da legerik horrelakoak gaitzetsiko dituenik. Eta Jesu Kristorenak direnek gurutzeko hilarazi dute bekatuzko beren giza izaera beronen gurari eta grinekin.

Bizia Espirituak ematen badigu, jokatu ere joka dezagun Espirituaren arabera.

Jaunak esana.

EBANJELIOA

*Aitak ni bidali nauen bezala, nik zuek bidaltzen zaituztet.
Hartzazue Espiritu Santua.*

+ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 19-23

Asteko lehen egun hartan bertan, arratsean, ikasleak etxe batean bildurik zeuden; judu-agintarien beldurrez, ateak itxirik zeuzkaten. Sartu zen Jesus eta, erdian jarriarik, agurtu zituen esanez: «Bakea zuei».

Gero, eskuak eta saihesta erakutsi zizkien. Pozez bete ziren ikasleak Jauna ikustean.

Jesusek berriro esan zien: «Bakea zuei. Aitak ni bidali nauen bezala, nik zuek bidaltzen zaituztet».

Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenei, ukatu egingo die».

Jaunak esana.

Edo:

Egiaren Espiritua etortzean, egia beteraino gidatuko zaituzte.

+ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15, 26-27; 16, 12-15

Denbora haietan Jesusek bere jarratzaileei esan zien:

Nik Laguntzailea, Aitarengan jatorria duen egiaren Espiritua, bidaliko dizuet Aitaren ondotik. Etortzean, hark egingo du testigantza nire alde. Eta zuek ere egingo duzue testigantza, hasieratik nirekin egon baitzarete.

Badut oraindik hamaika gauza esateko, baina oraingoz ez zarete gauza ondo ulertzeko. Baina egiaren Espiritua etortzean, egia beteraino gidatuko zaituzte. Ez da mintzatuko bere kabuz, baizik eta nik jakinaraziko diodana adierazi eta etorkizuna iragarriko dizue. Berak nire Jainko-aintza azalduko du, adieraziko dizuen niregandik hartuko baitu. Aitak duen oro nirea da. Horregatik esan dizuet Espirituak niregandik hartuko duela adieraziko dizuen.

Jaunak esana.

Blog: <https://homiliaspagola.blogspot.com/>